

JUAN JOXE AGIRRE, Artxiboko arduraduna:

"Azken papertxoa ere beharrezkoa da"

Juan Joxe Agirre Alegin jaio zen 1930ean. Bere osaba bat Lazkaoko komentuko nagusia zen eta beneditarrekin joatea erabaki zuen. Liburutegiko ardura hartu ondoren, Bartzelonara joan zen Bibliotekonomia ikastera. Handik itzuli zenean, 1973an, hasi zuen bilketa lana

Nolatan hasi zinen inprimakiak biltzen?

Bartzelonan Bibliotekonomia ikasi nuen eta historia ikertzeko azkeneko papertxoa ere beharrezkoa dela ikusi nuen. Garai hartan kataluniarrak kultur arloan gure aurretik zeuden eta hemen bilketa lana egiten lehena izan nintzen. Frankismo garaian hasi nintzen, 1973an hain zuzen ere.

Ba al duzu altxor kuttunik?

Kuttunak asko dira. Batzuk aipatu ere ezin dira egin, ekarri dituztenek ez baitigute oraindik iker-tzaileen esku uzteko baimenik eman.

Zer diozu maitasunez zaindu eta aberastu duzun artxiboaren etorkizunaz?

Ez zegoen nahikoa toki eta iker-tzaileei ezin genizkien lan baldintza duinak eskaini. Eraikin berria egin da eta biharko egunean artxiboak Lazkaon jarraituko du. Datorren hilean sinatuko dugu fundazioaren sorrera eta ni lehendakaria izango naiz. Gu hemendik joaten bagara, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du ardura.

Nork jarraituko du zure lana?

Miren Barandiaran izugarri azkarra da eta badira hiru urte bileretara eramaten dudala. Historia ikasi zuen, Bibliotekonomian masterra du, baita Artxibistikan ere... eta konfiantzazkoa da. Hona etortzen zen lanak egitera eta lagun batek bikaina zela esan zidan. Niri laguntzea eskani nion eta onartu egin zuen.